

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

**MISIOA
SENIDETASUNA DA**

GURE ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN EGUNA

Martxoak 19 Marzo
2021

DÍA DE MISIONES DIOCESANAS VASCAS

**LA MISIÓN ES
FRATERNIDAD**

DIÓCESIS DE SAN SEBASTIÁN

MISIONEROS CON CORAZÓN DE PADRE

La campaña de las Misiones Diocesanas Vascas de este año, que se celebra en la Solemnidad de San José, adquiere en esta ocasión un especial relieve al haber declarado el Papa Francisco el 2021 como Año de San José; conmemorando de esta manera el 150 aniversario de la declaración de San José como patrono de la Iglesia Universal.

La Carta Apostólica que el Papa nos ha dirigido con este motivo, bajo el título PATRIS CORDE (Con Corazón de Padre), describe siete características de la figura de quien es el santo patrono de todos nosotros, y que bien podemos y debemos referirlas al ideal de todo misionero; sin olvidar nunca que con el término “misioneros” no nos referimos solo a los que están allá, sino también a los que estamos acá, puesto que por el sacramento del bautismo todos hemos recibido dicha vocación misionera.

1. *Padre amado*

He aquí el punto de partida de la vocación misionera: la viva conciencia de sabernos amados inmerecida y gratuitamente por Dios. El misionero es aquel que ha saboreado el amor gratuito, intuyendo así el amor eterno e infinito de Dios Padre, cuya bondad es el origen de todo lo que existe. Y es que, no se puede entregar la vida cuando no se ha descubierto su sentido. Sólo cuando sabemos que venimos del amor y que volvemos a él venciendo el sufrimiento y la muerte, es cuando podemos dar lo mejor de nosotros mismos con desinterés y alegría.

Misiolariak Aita-bihotzez

Euskal Elizbarrutietako Misioen aurtengo jardunaldiak, San Jose egunez ospatzen dugunak, esanahi berezia hartzen du oraingo honetan; izan ere, San Jose Urtea izendatu du Frantzisko Aita Santuak 2021a; San Jose Eliza Unibertsalaren zaindaria aitortua izan zeneko 150. urteurrenaren oroitzapena ospatzea da izendapen honen zergatia.

Asmo hau dela eta, Aita Santuak idatzi digun Gutun Apostolikoak, PATRIS CORDE (Aita-bihotzez) izenburu duenak, gu guztion zaindaria santua denaren zazpi ezaugarri aipatzen ditu, eta egoki eta bidezkoa da ezaugarri horiek ereduizko misiolari orori buruz esatea; baina «misiolari» hitza erabiltzean, ez gara ari urrutietara joanak direnei buruz bakarrik, baita hemen gaudenoi buruz ere, hain zuzen bataioko sakramentuan denok hartu dugu misiolari izateko bokazioa.

1. Aita maitatua

Hona hemen misiolari-bokazioaren abiapuntua: Jainkoak guk merezi izan gabe eta doan maite gaituela bene-benetan jakitea. Doan maitatua izan dela dastatu eta Jainko Aitaren maitasun betikoa eta neurrigabea sumatu duena da egiaz misiolari, Jainkoaren ontasun hori baita diren guztien jatorria. Izan ere, bizia eman ahal izateko, beharrezko da biziaren zentzua aurkitzea. Maitasunetik gatozela eta, sufrimendua eta heriotza gainditurik, berriro maitasunerantz goazela dakigunean bakarrik eman dezakegu geu garenaren onena eskuzabaltasun eta alaitasunez.

2. Padre en la ternura

Con frecuencia, la ternura ha sido referida exclusivamente a la maternidad; sin embargo, la paternidad humana está llamada a ser reflejo de la infinita ternura de Dios Padre. El misionero derrama la ternura de Dios a manos llenas, mostrando a los que son considerados en esta vida como los últimos de entre los últimos, que son los favoritos de Dios. Las palabras de San Pablo a los Colosenses están dirigidas a todo misionero: “Así pues, como elegidos de Dios, santos y amados, revestíos de compasión entrañable, bondad, humildad, mansedumbre, paciencia.” (Col 3, 12)

3. Padre en la obediencia

Un misionero no es aquel que aspira a ver cumplidos sus sueños, sino el que modula sus sueños a la voluntad de Dios, en perfecta obediencia. A ejemplo de San José, el misionero aprende a lo largo de su vida que el camino hacia la libertad pasa por una habituación a la obediencia. Se trata de descubrir la libertad de dejarse guiar...

4. Padre en la acogida

El misionero sabe muy bien que, como José, no tiene derecho a cruzarse de brazos, puesto que somos servidores de quien murió con los brazos abiertos. Por lo demás, todo aquel que se sabe débil y pecador está llamado a ser acogido en los brazos de Jesús, es decir, a ser acogido por el misionero. Las palabras del Evangelio de San Mateo en el relato del juicio final son un referente del misionero: “En verdad os digo que cada vez que lo hicisteis con uno de estos, mis hermanos más pequeños, conmigo lo hicisteis” (Mt 25, 40).

2. Aita samurtasunean

Sarritan, samurtasun hitza amatasunari buruz bakarrik erabili izan da; baina, giza aitatasunak Jainko Aitaren samurtasun mugagabearen adierazgarri ere izan behar du. Misiolariak esku beteka isurtzen du Jainkoaren samurtasuna eta mundu honetan azkenekoetan azkenekotzat hartuak direnei erakusten die, berak direla Jainkoak bereziki maite dituenak. Misiolari guztientzat esanak dira San Paulok Kolosarrei zuzendutako hitzak: «Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maitea zaretenez gero, jantzi zaitetze bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz» (Kol 3, 12).

3. Aita obedientzian

Misiolari ez da bere ametsak betetzea irrikatzen duena, baizik bere ametsak Jainkoaren borondatearen bidean jartzen dituenak, bene-benetako obedientzian. San Joseren etsenpluari jarraituz, misiolariak bere bizitzan ikasten du, askatasunerako bidea obedientziara ohitzetik igarotzen dela. Beste norbaiten gidaritza onartzetik datorren askatasuna aurkitzea da kontua...

4. Aita harrera onean

Besoak zabalduta hil zen haren zerbitzari garenez, misiolariak, Josek bezala, oso ondo daki, ez duela besoak gurutzatuta egoteko eskubiderik. Gainerakoan, bere burua argal eta bekataritzat daukaten guztiek Jesusen besoetan onartuak izatea dute etorkizun, hau da, misiolariaren harrera ona. Misiolariari dagozkionak dira San Mateok azken judizioari buruz Ebanjelioan esandako hitzak: «Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten» (Mt 25, 40).

5. Padre de la valentía creativa

Nos podemos imaginar a San José haciendo mil piruetas para esquivar el acecho de Herodes o los peligros de la huida a Egipto... ¿Quién dijo que la labor del custodio de Jesús sería un camino de rosas? Los misioneros tienen buena experiencia en su vida de aquellas palabras de Jesús: «Recordad lo que os dije: “No es el siervo más que su amo”. Si a mí me han perseguido, también a vosotros os perseguirán; si han guardado mi palabra, también guardarán la vuestra.» (Jn 15, 20)

6. Padre trabajador

Por algo será que el 1 de mayo celebramos la fiesta de San José Obrero. San José era un “currante”, como decimos popularmente. No solo trabajaba mucho y bien, sino que disfrutaba en su trabajo. Los misioneros hacen suya aquella máxima paulina: «Por mi parte, con sumo gusto gastaré y me desgastaré yo mismo por vosotros.» 2 Cor 12, 15)

7. Padre en la sombra

Precisamente, una de las novelas más bellas sobre la vida de San José lleva este título: “La sombra del padre. (Historia de José de Nazaret)”, escrita por un polaco llamado Jan Dobraczynski. Ser padre en la sombra es tanto como ser fecundo sin reivindicarlo, dar con la conciencia de estar recibiendo, no tener noticia la mano izquierda de lo que hace la derecha... Y así también, que no nos quede duda, que lo más valioso de la vida de los misioneros no está en lo que el mundo conoce y aplaude de ellos, sino en ser pregoneros del Corazón de Cristo, que les ha elegido para declarar su amor al mundo.

5. Ausardia sortzailearen Aita

Pentsa dezakegu nolako buruhausteak jasan izango zituen San Josek Herodesen trikimailuak edota Egiptora ihes egitekoan izandako arriskuak saihesteko. Baina nork esan zuen Jesusen zaindariaren eginkizuna arrosa-bidea izango zenik? Beren bizitzan nabaritu izan dute misiolari-riek Jesusen hitz haien egia: «Gogoratu esan nizuena: “Morroia ez da nagusia baino handiago”. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere» (Jn 15, 20).

6. Aita langilea

Zerbaitegatik izango da maiatzaren 1ean San Jose Langilearen jaieguna ospatzea. San Jose, izan ere, hori zen: «langilea». Asko eta ondo lan egiteaz gainera, gozatu egiten zuen bere lanean. Berentzat hartzen dute misiolari-riek San Pauloren esaldi hura: «Niri dagokidanez, oso gustura emango dut dudan eta naizen guztia zuengatik» (2 Ko 12, 15).

7. Aita itzalean

Izenburu hau du, hain zuzen, San Joseren bizitzari buruzko eleberri ederrenetako batek: «Aitaren itzala (Nazaretoko Joseren historia)»; Jan Dobraczynski poloniar-ri idatzia da. Aita itzalean izateak emankor izatea esan nahi du, baina kanpaiak jotzen aritu gabe, zerbait hartzen ari balitz bezala ematea, ezkerreko eskuak ez jakitea zertan ari den eskuina... Eta horrela, ez dezagula zalantzarik izan, misiolarien bizierako gauzarik baliotsuena ez dela beraietaz munduak ezagutzen eta txalotzen duena, baizik eta Kristoren bihotzaren aldarrikatzaile izatea, Kristok aukeratuak izan baitira munduari dion maitasuna hots egiteko.

Estamos invitados a leer detenidamente la referida Carta Apostólica PATRIS CORDE, y a pedirle con fe y esperanza a San José, que nos conceda ser misioneros con corazón de padre.

- + **José Ignacio Munilla Aguirre**
Obispo de San Sebastián
- + **Juan Carlos Elizalde Espinal**
Obispo de Vitoria
- + **Joseba Segura Etkezarraga**
Obispo Auxiliar de Bilbao

Gonbit egiten zaigu PATRIS CORDE Gutun Apostolikoa arretaz irakurtzera, eta fedez eta itxaropenez San Joseri eskatzera, eman diezagula aita-bihotzez misiolari izatea.

- + **Jose Inazio Munilla Aguirre**
Donostiako Gotzaina
- + **Juan Carlos Elizalde Espinal**
Gasteizko Gotzaina
- + **Joseba Segura Etkezarraga**
Bilboko Gotzain Laguntzailea

19 de marzo
SAN JOSÉ, ESPOSO DE LA VIRGEN MARÍA
Misiones diocesanas

Saludo

La gracia y la paz de Cristo estén con todos vosotros.

Monición de entrada

Celebramos hoy a San José, que fue nombrado patrón de la Iglesia hace 150 años, y por el cual estamos celebrando un año especial. Es también patrón de nuestras misiones diocesanas y es por ello que hoy rezamos y damos nuestra colecta para las misiones. “La misión es fraternidad” dice el lema de la jornada: recordando la llamada del Papa a que todos tenemos que ser hermanos.

Celebremos de corazón esta fiesta tan querida entre nosotros.

Acto penitencial

Hermanos: reconozcámonos pecadores, pidamos con confianza la misericordia santificadora del Señor.

- Tú que nos enseñas a escuchar: Señor, ten piedad.
- Tú que siembra tu palabra en nuestro corazón: Cristo, ten piedad.
- Tú, que nos fortaleces con tu Espíritu para que demos frutos de vida eterna: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna.

Martxoaren 19
SAN JOSE, MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SENARRA
Gure Elizbarrutiko misioak

Agurra

Jesu Kristoren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Duela 150 urte Elizaren zaindari izendatua izan zen San Jose ospatzen dugu gaur, bere urte santu berezia ospatzen ari garen honetan. Elizbarrutietako misioen zaindaria ere bada eta Misioei laguntzeko izango da gure gaurko otoitza eta diru-bilketa. “Misioa senidetasuna da” dio, hain zuzen aurtengo goiburuk: Aita Santuak denok elkarren senideago izateko deia egin berri digula gogoratuz.

Ospa dezagun bihotzez gure herrietan hain maitea den jai hau.

Damu-otoitza

Senideok: aitor dezagun bekatari garelara, eska dezagun uste onez Jaunaren erruki santutzailea:

- Jesus Jauna, entzuten irakasten diguzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure bihotzean zure Hitza ereiten duzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, betiko biziaren fruituak eman ditzagun zure Espirituaz sendotzen gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Gloria

Oración colecta

**Concédenos, Dios todopoderoso,
que tu Iglesia conserve siempre y lleve a su plenitud
los primeros misterios de la salvación humana
que confiaste a la fiel custodia de san José.**

**Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.**

Monición a la liturgia de la palabra

José era de la estirpe de David, y es quien une a Jesús a esa estirpe. Junto a eso, las lecturas nos recuerdan que Dios nos acompaña: nos lleva de la mano; los creyentes necesitamos vivir con confianza.

Sugerencias para la homilía

Te estábamos buscando

Jesús acompañado por José y María va, por primera vez al templo de Jerusalén, como todos los muchachos al cumplir los doce años, y allí se pierde voluntariamente, creando unas horas de pánico a sus padres: “tu padre y yo te buscábamos angustiados”. José, al igual que su esposa, experimentan el dolor de tantas familias por sus hijos y no entienden su respuesta “¿no sabíais que yo debía estar en la casa de mi padre?”. La fidelidad de esta admirable pareja de buenos judíos no se basa en relaciones continuadas, sino en su fe, y tiene el mérito de superar desde la confianza en Dios las dudas y las penumbras de la vida de cada día.

Aintza zeruetan

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
gizadiaren salbameneko lehen-misterioak
Jose santuaren ardura leialaren pean jarri zenituen;
egizu, haren otoitzari esker,
Elizak ere zaindu ditzala beti eta eraman bere betera.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Daviden jatorrikoa zen Jose, eta bera da Jesus jatorri horretara lotzen duena. Horrekin batera, Jainkoaren bide-laguntza gogoratzen digute irakurgaiek: eskutik garamatza; itxaropena behar dugu fededunok.

Homiliarako argibideak

Zure bila genbiltzan

Joseren eta Mariaren eskutik tenplura joan zen Jesus, hamabi urterekin mutiko gehienak joan ohi ziren bezala; eta galdu egin zen, gurasoei ordu batzuetako eromena sortuz: “Zure aita eta biok bila genbiltzan atsekabez”. Josek, emazteak bezala, hainbeste gurasok seme-alabengatik sufritzen duen moduan sufrituko zuen eta ez zuen erantzuna ulertu: “ez al zenekiten nire Aitaren etxean egon behar nuela?”. Judu zintzoen bikote honengan gauza bat ageri da: leialtasuna, ez errebelazio handietan oinarrituz, fedean oinarritua baizik, Jainkoarekiko konfiantzaz gainditzen zituztelarik eguneroko zalantzak eta ilunaldiak.

Las lecciones que nos da San José son claras. Es un hombre de fe, abierto y dócil a los mensajes de Dios que le llegan de modo misterioso; es el hombre justo y bueno que, como Abraham, cree en Dios y mantiene en todo momento la esperanza. Nos enseña a cumplir la misión que Dios nos encomienda a cada uno. Para él fue la de ser el custodio de Jesús y María. Recordando que hace 150 años San José fue nombrado patrono de la Iglesia, el Papa Francisco ha convocado un año santo y ha escrito una carta sobre San José llamada “Patris corde”, es decir, “Con corazón de Padre. En esa carta nombra de estas maneras a San José: “padre amado”, “padre de la ternura”, “padre de la obediencia”, “padre en la acogida”, “padre de la valentía creativa”, “padre trabajador”, y “padre en la sombra”.

Todos nosotros tenemos una misión que cumplir, en nuestra familia, en nuestro trabajo, en nuestro ambiente social: además de ser buenas personas, que saben ayudar a los otros y hacerles felices, se nos pide que colaboremos a que la Buena Noticia de Jesús alcance a todos.

José cumplió esta tarea desde la sencillez de su vida diaria. Lo que Dios nos pide no es siempre un papel de primera línea. José, sin cosas espectaculares, supo ser fiel. No pronunció palabras solemnes ni hizo milagros. Pero, desde su vida y su trabajo de cada día fue diciendo “sí” a Dios. Tampoco a nosotros la renovación Pascual nos pide actitudes solemnes, sino la profundidad de las cosas sencillas y vitales.

Muchas veces, en nuestra vida, como en la de Abraham o la de José, se entrecruzan momentos de dificultad y duda. Junto a días de paz y alegría hay otros de angustia y dolor. José fue obediente también cuando tuvo que emigrar o huir de la persecución o llevar una vida escondida en Nazaret o experimentar el dolor de la pérdida de su hijo en el Templo o desempeñar siempre un papel secundario en la historia. Fue generoso en su respuesta: “hizo lo que le había mandado el ángel del Señor”.

Joseren ikasbideak argiak dira. Gizon fededuna da, Jainkoaren mezuekiko bihotz-zabala eta esanekoa agertzen duena; gizon zintzoa da, Abrahamen moduan Jainkoagan sinetsi eta harekiko esperantzan bizi dena. Jainkoak bakoitzari eskatzen diona betetzen erakusten digu. Jesusen eta Mariaren zaintzaile izatea izan zen bere eginkizuna. Orain 150 urte Elizaren zaindari izendatua izan zela gogoratuz urte santua deitu du Frantzisko Aita Santuak eta gutuna idatzi ere bai San Joseri buruz “Patris corde” izena duena, hau da: “Aita bihotzarekin”. Gutun hauetan izen hauek ematen dizkio San Joseri: “aita maitatua”, “gozotasunean aita”, “obedientzian aita”, “harrera onean aita”, “ausardia sortzailean aita”, “aita langilea”, “itzalean dagoen aita”.

Denok dugu bete beharreko eginkizun bat gure familian, gure lanean, gure eguneroko inguruan: besteei laguntzen eta besteak zoriontsu egiten saiatzen gizon eta emakume zuzenak izateaz gain, Jesusen Berri Ona guztiengana irits dadin lan egiteko eskatzen zaigu.

Eguneroko apaltasunean bete zuen Josek bere zaindari egitekoea. Jainkoak ez digu eskatzen beti eginkizun nabarmenik. Josek, gauza aipagarriak egin gabe leial izaten asmatu zuen. Hor dago koska. Ez zuen aldarrikapen ezagunik egin ezta mirari apartekorik ere. Baina eguneroko bizitzan eta lanean Jainkoari “baitz” esaten jakin zuen. Guri ere, aurtengo pazko berritasunak ez digu eskatuko liburuetan idazteko moduko egintzarik, bai ordea gauza txiki eta garrantzitsuetan sakon eta txukun, apal eta leial jardutea.

Gure bizitzan ere, Joseren bizitzan edo Abrahamenean bezala ez dira falta zailtasunak eta zalantzak. Pertsekuzioaren aurrean ihes egin behar izan zuenean, semea galdu eta atsekabez egon zenean nahiz Jesusen historian beti bigarren mailako presentzia bat bete behar izan zuenean, Jose esaneko izan zen. Gizon portatu zen. Eskuzabal izan zen bere erantzunean “Jaunaren aingeruak esandakoa” betez.

Acercarse al misterio de la salvación, del que es protagonista Dios, muchas veces supone la oscuridad del miedo: el camino del desierto y de la Cuaresma y hasta de la cruz. No creemos en Dios por las seguridades que nos da sino porque nos fiamos plenamente de él. Como José.

Bajo el lema “La misión es fraternidad” celebramos hoy el día de las Misiones diocesanas. El número de nuestros misioneros ha descendido mucho, pero nuestra iglesia sigue siendo generosa, unida en la oración y generosa en la aportación para las tierras de misión. Tenemos que impulsar todo lo que tiene que ver con la misión, porque la misión es signo de esperanza y nos enseña a vivir como hermanos. Seamos como San José valientes y libres, afrontando nuevos retos.

Oración de los fieles

Oremos, hermanos, al Señor y pidámosle que se acuerde de nosotros, obra de sus manos:

Respuesta: Kyrie, eleison!

- Para que el Dios, que puso en manos de san José el cuidado de su Hijo hecho hombre, asista a los pastores de la Iglesia, en manos de los cuales ha confiado los sacramentos de la gracia y los dones de la salvación. Oremos. R/.
- Para que el Señor que dio la tierra a los hombres y mujeres para que la cuidasen, otorgue a todos los trabajadores lo necesario para vivir con dignidad y felicidad. Oremos. R/.
- Para que el Señor, por medio de san José que conoció la incertidumbre de tener que dejar su tierra, venga en auxilio de los emigrantes y de todos los que viven en medio de dudas y tormentos. Oremos. R/.

Salbamenaren misteriora gerturatzeak, iluna eta beldurra sor dezake askotan; Jainkoa da misterio horren protagonista, Garizumako basamortuak gurutzera garamatza. Jainkoagan ez dugu sinesten ziurtasuna ematen digulako, berarekin fio garela-ko baizik. San Josek bezalaxe.

“Misioa senidetasuna da” goiburuarekin, gure Elizbarrutiko misioak gogoan ditugu gaur. Misiolari gutxiago ditugu, baina eskuzabal izaten jarraitzen du gure elizak, otoitzarekin eta dirulaguntzarekin misioei lagunduz. Misioarekin zerikusia duen guttia maitatzen eta sustatzen jarraitu behar dugu, misioa itxaropen iturri delako guretzat eta senideago izaten erakusten digulako. Izan gaitezen san Jose bezala ausartak eta askeak, erronka berriei aurre eginez.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin diezaiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaiogun oroi dadila gurekin, bere eskuen sorkari garenez:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

- Gizon egindako bere Hitza san Joseren ardurapean jarri zuen Jaunak, lagun diezaiela Elizaren artzainei berauen esku utzi baititu graziaren sakramentuak eta salbamenaren dohainak. Egigun otoitz. R/.
- Lurra gizakiaren esku utzi eta zaintzeko agindu zion Jaunak eman diezaiela langile guztiei duintasunez eta zorionez bizitzeko behar dutena. Egigun otoitz. R/.
- San Josek bere lurra utzi beharraren ezina sufritzean ondoan izan zuen Jaunak, lagun diezaiela etorkinei eta zalantza artean eta estuasun larrian bizi diren guztiei. Egigun otoitz. R/.

- Por nuestras Misiones diocesanas: por nuestros misioneros que en nombre de todos nosotros anuncian el evangelio en tierras necesitadas, por quienes nos esforzamos en ayudarles desde aquí. Que seamos conscientes de que la acción misionera es constitutiva de la Iglesia. Oremos. R/.
- Para que Dios, que quiso que José fuera asistido por Jesús y María en el momento de su muerte, sea benigno y misericordioso con los agonizantes y a nosotros nos asista en la hora de la muerte. Oremos. R/.

Que nos ayuden los méritos de san José, esposo de María y que, por su intercesión, consigamos los bienes que, por nuestros méritos no nos atrevemos a pedir. Por Jesucristo nuestro Señor.

Al presentar las ofrendas

La colecta de hoy será para ayudar a nuestras Misiones Diocesanas.

Prefacio

San José tiene prefacio propio. Misal Romano, página 499.

Oración después de la comunión

**Defiende, Señor,
con tu protección continua a tu familia,
alegre por la solemnidad de san José,
y, al saciarla con el alimento de este altar,
conserva con bondad tus dones en ella.**

Por Jesucristo, nuestro Señor.

Bendición solemne (Ver Misal Romano, página 488).

- Elizbarrutiko misioen alde: lurralde behartsuetan gu guztion izenean Jesusen berri ona zabaltzen ari diren gure misioen alde, hemendik haiei laguntzeko ahalegi-na egiten dugunon alde. Misiolaritza Elizaren jarrera ezinbestekoa dela jabetu gaitezen. Egigun otoitz. R/.
- San Josereren heriotzan Jesus eta Maria ondoan egotea nahi izan zuen Jauna izan dadila errukitsua hiltzorian daudenekin eta lagun diezagula guri ere heriotzako orduan. Egigun otoitz. R/.

Andre Mariaren senar Jose santua gogoan dugula eskatzen dizugu, bera bitarteko dugula iritsi ditzagula geure ahultasunez eskatzera ere ausartzen ez garen guztia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eskaingaiak aldarera ekartzean

Diru-bilketa gure Elizbarrutiko misioei laguntzeko izango da.

Prefazioa

San Josek bere prefazioa du, Meza liburuko 747. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Aldareko janari santuaz ase duzu, Jauna,
zeure kristau-familia hau Jose santuaren festaburua
pozik ospatzen duen egun honetan;
zaindu ezazu beti zeure babespean
eta gorde berarengan Zuk maitasun handiz emandako
dohainak.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bedeinkapen Nagusia (Ikus Meza-liburuan 654. or.).

OHARRA

Iaz San Jose Eguna bizi dugun pandemiaren hasieran izan zen. Hori dela eta, ez zen elizkizunik ospatu eta ezin izan genuen diru-bilketarik egin. Hala ere, antolatutako beste kanpainetan gure elizbarrutiakeskuzabal-tasunez jokatu du. Laguntzen jarrai dezagula.

En 2020, San José coincidió con el inicio de la pandemia que estamos viviendo. Al suspenderse el culto religioso, no pudimos realizar la colecta. Por otro lado, nuestra diócesis se ha mostrado generosa en otras campañas que hemos organizado. Sigamos colaborando.

Ingresos

Donativos generales	150.000
Donativos Covid	41.000
Herencias y legados	<u>459.000</u>
	650.000

Dónde van las aportaciones

Alimentación infantil	282.000
Proyectos pastorales	140.000
Proyectos sociales	153.000
Emergencia Covid	<u>75.000</u>
	650.000

Kutxabank ES20 2095 5001 0510 6068 5889
Laboral Kutxa ES12 3035 0060 4106 0070 4166
Caixabank ES05 2100 8686 8002 0002 3922



00931